

**EGEF JARDUNAK, ARABAKO FORU ALDUNDIA. EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGORAKO 2014-2020 EGEF
PROGRAMA ERAGILEA**



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"
Eskualde Ganapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

6LA. Ingurumena kontserbatu eta babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea

6.4.1.HE. Lurzoruaren, naturaguneen eta haietako biodibertsitatearen kudeaketa, babesa eta mantentze lanak sustatzea, batez ere babestuetan; eta neurriak hartzea honako arazo hauek arintzeko: higadura, gazitzea, basamortutzea, baso soiltzea eta lurzoruan materia organiko gutxi izatea.

AFA-06 - BIODIBERTSITATEA BABESTEA ETA LEHENGORATZEA NATURA 2000 SAREKO ARABAKO NATURAGUNE BABESTUETAN

Azalpena:

Jardunaren xedea da zona hondatuak lehengoratzea eta inguruen egokitzapen ekologikoa egitea, eta biodibertsitate berezia lehengoratu eta haren balioa nabarmentzea; horretarako, lehenetsia emango zaie Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoak eta zuzenean bere ardurapekoak diren naturagune babestuetan egin beharreko esku hartzei.

Gauzatze egutegia:

2018-2023

Finantza alderdiak:

EGEF laguntzaren zenbatekoa: 52.050,15 euro

Arduraduna:

Ingurumen eta Hirigintza Saila – Natura Ondarearen Zerbitzua

Gauzatze adierazlea (2014-2020):

C023 (Kontserbazio egoera hobea lortzeko diruz lagundutako habitaten azalera): 0,07

2018an egindako jardunak:

Gatz Haraneko enklabe botanikoa, zeina Dona Garaziko lurzatian baitago, Muera ibaiaren iturburuaren alboan. 16 larrain gehitu dira gatzagetako biodibertsitatearen birsortze eta hedapenerako proiektura, haietan biltzen baita gatzagaguneetako flora espezifikoa, halofilo deritzen espezieak, zeinetako asko galzorian baitaude. Halaber, proiektuak ahalbidetu du Dona Garaziko iturburua egokitzea; hain zuzen, handik dator gatz ustategia sortu zuen gatzuna. Jardun horiei esker, alde batetik, errazago izango da gatzagaguneei loturiko biodibertsitatea eta flora ikertu, kontserbatu eta birsortzea, eta, bestetik, bisitariak aukera izango dute hobeto ezagutzeko naturagune babestu horretako biodibertsitatea eta natura balioak

